

**ENTZUNALDIETARAKO DEIALDIA ARRIAGA ANTZOKIAN**  
**MASTER-CLASSA ETA 21 LÁGRIMAS: LAGRIME DI SAN PIETRO KONTZERTUA**

Arriaga Antzokiak 2020ko apirilaren 13tik 18ra egingo den master-claslean eta Carlos Mena maisuaren zuzendaritzapean 2019/2020 denboraldirako programatutako 21 LÁGRIMAS: LAGRIME DI SAN PIETRO ikuskizunean parte hartuko duten abeslariak hautatzeko deialdia iragarri du. Kontzertua 2020ko apirilaren 19an izango da.

**XEDEA**

Deialdi honen xedea 7 abeslariz osatutako taldea aukeratzea da, Arriaga Antzokian lankidetzan aritzeko. 2020ko apirilaren 13tik 18ra Carlos Mena maisuak zuzendu eta emango duen master-class bat egingo da goizez eta arratsaldez. Master-classera joan ondoren, aukeratutako kantariak, Orlando di Lassoren musika izango duen 21 LÁGRIMAS: LAGRIME DI SAN PIETRO ikuskizunean parte hartuko dute, 2020ko apirilaren 19an, 19:00etan, Bilboko Arriaga Antzokian.

Deialdi honetan parte hartzeko, beharrezkoa izango da aurkeztutako hautagaiak aurretik hautatzea, haien idatzizko eta ahozko proposamenak kontuan izanda.

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Hautagaiak bete behar dituzten baldintzak:

1. Abeslari izatea: sopranoa, mezzosopranoa, kontraltoa, kontratenorea, tenorea, baritonoa edo baxua.
2. Curriculum Vitae osoa bidaltzea, word edo pdf formatuan, oinarrizko datu pertsonalekin, harremanetarako datuekin eta prestakuntza/ibilbide profesionalarekin, artistaren argazkiarekin batera.
3. Grabazio bat bidaltzea audio edo/eta bideo formatuan, hautagaia 1750 baino lehenagoko 5 minutuko ahots-lana interpretatuz erakutsiko duena. 1 GBko edo gutxiagoko memoria fitxategia izango da, eta wetransfer, dropbox, google drive edo bolumen handiko fitxategiak bidaltzeko antzeko beste edozein plataforma edo sistema erabiliz bidaliko da.

**PARTAIDETZARAKO ESKAERA**

Hautagaiak CVa eta grabazioa 2019ko abenduaren 18ra arte, hori barne, bidali ahal izango dituzte helbide elektroniko honetara: [audiciones@teatroarriaga.eus](mailto:audiciones@teatroarriaga.eus), mezuaren gaian hau adieraziz: "21 Lágrimas entzunaldietan parte hartzeko eskaera".

Ez da onartuko adierazitako egunaren ondoren jasotzen den edo eskatutako baldintzak betetzen ez dituen proposamenik.

**AURRE-AUKERAKETA**

Jasotako proposamenetan oinarrituta, Arriaga Antzokiak aurkeztutako hautagaien aurre-aukeraketa egingo du.

Aurre-aukeratuei hitzordua bidaliko zaie antzokian zuzenean entzuteko, eta entzunaldian interpretatu beharko duten musika pieza ere adieraziko zaie.

**ENTZUNALDIAK**

Entzunaldiak 2020ko urtarrilaren 27tik 31ra bitarteko astean egingo dira, hautagai bakoitzarekin adostuko den egunean eta orduan, Arriaga Antzokian (Arriaga plaza, 1 48005 Bilbo).

Entzunaldietatik aterako da master-clasean eta ikuskizunean parte hartuko duten 7 hautatutakoek osatutako taldea.

### **ARAU OROKORRAK**

Hautatutakoen taldean bajak edo hutsuneak egonez gero, entzunaldia egin duten eta aurre-aukeratuak izan diren hautagaiekin bete ahal izango dira.

Master-classerako matrikula doakoa izango da.

Prozesuari buruzko zalantzak aipatutako posta elektronikoan argituko dira.

Prozesu honetan parte hartzea eskatzen duten hautagaiek euren borondatez ematen dute baimena euren datu pertsonalak deialdian, master-clasean eta kontzertuan erabiltzeko. Datu horiek Arriaga Antzokiak soilik tratatuko ditu, [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) webgunean argitaratutako pribatutasun-politikaren arabera.

Prozesuan parte hartzeak bertan ezarritako arauak onartzea dakar, eta, nolana ere, Arriaga Antzokiak argituko ditu, azken batean, sortzen diren zalantzak, eta entzunaldi prozesua behar bezala amaitzeko beharrezko erabakiak hartuko ditu, deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztian.

Bilbon, 2019ko azaroaren 15ean